

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera atera nahi badugu oso garrantzitsua iruditzen zaigu hainbat enpresa edo pertsonekin kontaktuan jartzea, dena geure kabuz egitea zaila baita. Horretarako, elkarte batzuekin harremanetan jarriko gara, eta hauek lekua eta diru-laguntzak emateaz arduratuko dira beste hainbat baliabideren artean.

Lehenik eta behin, gure egitasmoa aurrera eramateko ezinbestekoa da lokal bat edukitzea.



Horregatik, UGGASArekin jarriko gara kontaktuan (*UGGASAk Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A. esan nahi du*). Agentzia honek behar-beharrezkoak diren elementuak aportatuko dizkio lokalari: argindarra, gasa, ura eta interneta hain zuzen ere. Guzti hauegatik, UGGASAk hilabetean 30€ kobratuko dizkigu, gazte ekintzaileak gara eta. Lehen bi urteetan, agentzia honek, gazte ekintzaileei baliabide hauek emategatik 30€ bakarrik kobratzen dizkie. Guk aliantza hau sortzea erabaki dugu gure proiektuaren

lehen bi urteetarako behintzat, hasieran bultzada handi bat emateko oso bide aproposa iruditzen zaigulako. Honetaz gain, honen bidez diru asko aurreztuko dugu, zerbitzuak oso merke eskaintzen dituzte eta.

Crossfiteko saioetako materiala lortzeko hornitzaileekin harremanetan jartzea eta beraiekin kontaktuan egotea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Eurek salduko baitizkigute gure gimnasioan behar izango ditugun materialak. Material guztia enpresa berdinari erosiko diogunez, ongi etorriko litzaziguke beherapen bat egitea, makinak oso garestiak baitira eta honek nahiko inbersio handia eskatzen baitu. Rocfit enpresa izango da makinak salduko dizkiguna, bertan mota guztietako makinaria dago; erreabilitaziorako, gimnasio profesionalerako... Eta guk era guztietako materiala behar dugunez, oso ondo etorriko zaigu enpresa honekin harremanetan jartzea. Beste hainbat gimnasioko material erosteko, makinak ez direnak (mankuernak, barrak...) getstrong.es-ekin kontaktuan jarriko gara, gure xedea baliabide onenak dituen gimnasioa eraikitzea delako eta bertan oso maila altuko materiala saltzen dutelako.

Honez gain, Megablok-ekin kontaktuan jarriko gara gure lokalean takilak eta aldagelak jartzeko. Beharrezkoa ikusten dugu gure bezeroen objektuak toki seguru batean egotea, horregatik jarriko ditugu takilak. Bertan aldatzeko eta entrenamendu bukaeran dutxatzeko aldagelak jartzea ezinbestekoa ikusten dugu, aldagelak ere megablok-i erosiko dizkiogu. Kartelak ere garrantzizkoak izango dira jendeak gure negozioa ezagutu dezan, horregatik "HelloPrint.es" enpresarekin kontaktuan jarriko gara guri kartelak saltzeko.

Era berean, inguruko beste enpresekin aliantzak egitea garrantzitsua izango dela pentsatzen dugu. Guk, alboan Salto izeneko enpresa izango dugu beraiek ere gazte-ekintzaileak dira eta. Bertan bezeroari entrenatzeko eta ondo elikatzeke aukera eskaintzen zaio. Baina lesioen arloan, Saltok ez ditu erreabilitaziora bereziki zuzentzen den jarduerarik. Hori dela eta, alboko gimnasioko lesionatuak guregana etortzeko aukera izango dute lesio hori gainditzeko ariketak egitera. Honetaz gain, hartueman posible gehiago ikusten ditugu gu eta Saltoren artean. Alde batetik, guk kirol modalitate oso espezifikoak

eskaintzen dugunez (crossfit), beraiek duten bezeroren bat crossfita praktikatzeko gure gimnasia bideratzea. Eta beste aldetik berriz, gure gimnasia datorren norbait Salto-ra bideratzea, lehenago aipatu bezala, oso modalidade espezifiko bat eskaintzen dugulako eta agian beste enpresan eskaintzen duten kirol edo jarduera motaren bat hobeto egokitzen zaiolako pertsona horri. Aliantza mota honi "coopetencia" deitzen zaio, nahiz eta bi enpresek berez elkarri konpetentzia egiten diogun bion arteko aliantzarekin biak irabazten ateratzen garelako.

Guk ere webgune bat izango dugu. Hau sortzeko "Dominio.es" webgunea erabiliko dugu.



SALTO-k bere bezeroei entrenamendu pertsonalak zentruan, entrenamendu pertsonalak bezeroaren etxean, online entrenamenduak eta aholkularitza nutrizionala eskaintzen die. Baina aipatu dizuegun bezala ez dute erreabilitaziora bereziki dedikatzen den ezer eskaintzen. Hau kontuan izanik alboko gimnasioak beraien bezeroari ezarritako ariketak gure gimnasioko material egokiarekin egiteko aukera izango dute, hau da, haiek ezarritako ariketak gure gimnasioan egin ditzazkete gure materialarekin.

"Balorezko proposamena" atalean aipatu dugun bezala, 3 monitore edukiko ditugu lanearako. Gure gimnasioko 4 sortzaileen artean bik bakarrik ditugu kirolei buruzko ikasketak, eta horrenbestez, saioak emateko beste pertsona bat kontratatzeko beharrean sentitzen dugu. Pertsona hau Mikel Aiastui monitorearekin ikasketak egindako konfiantzazko lagun bat izango da, Xabi Amundarain hain zuzen ere. Mikelek konfiantza osoa du entrenatzaile honengan eta esaten du gai izango dela lana berak bezain ondo egiteko. Azken honek hasiberriei emango dizkie klaseak.

Proiektua abian jartzeko eta ondoren aurrera eramateko, Eusko Jaurlaritzari diru laguntzak eskatuko dizkiegu. Gure lokala Urretxun kokatuta dagoenez, hemengo gobernuari eskatuko diogu. Diru laguntza hauek motz geratuko direla aurreikusten dugunez, mailegu bat eskatu diogu Caixabank banketxeari, honela proiektua martxan jartzeko baliabideak lortzeko.

Elkarte hauekin guztiekin aliantza bat adostea lortzen badugu, gure proiektuarentzat aurrera pauso handi bat izango dela deritzogu, honek lana asko erraztuko digulako eta proiektua guk dauzkagun baliabideekin bakarrik aurrera ateratzea oso zaila iruditzen zaigulako, ezinezkoa ez esate arren.